

## IRRATI ANTZERKIARI ETA FIKZIOARI BURUZKO II. LEHIAKETA II CERTAMEN DE RADIO TEATRO Y FICCIÓN RADIOFÓNICA

### ***John Trollope hamabostean behin* eta *El tamaño sí importa* izan dira Donostia Kulturak eta Casares irratiak antolatutako Antzerkia Airean II. lehiaketaren irabazleak**

2007ko Antzerkia Airean Irrati Antzerkiari eta Fikzioari buruzko lehiaketaren irabazleak ondokoak izan dira: John Trollope pertsonaian oinarritutako absurdoaren antzerkia, Ruper Ordorika abeslariarena, eta Radio San Sebastián irratiaren ematen duten *La Taquilla* saioaren emanaldia. Bigarren edizio hau Donostia Kulturak antolatu du, Casares irratiaren bidez, eta sariak uztailaren 13an banatuko dituzte Antzoki Zaharrean, Donostiako XIII. Antzerki Feriaren baitan.

Antzerkia Airean lehiaketaren bigarren edizioa uztailaren 13an, ostiralean, amaituko da, eta Antzoki Zaharreko azken ekitaldian banatuko dituzte sariak. Lan irabazleen egileak Ane Zabala bizkaitarra eta Ángel Gómez donostiarra dira, eta biek 500 euroko txekoa eta plaka jasoko dituzte. Epaimahaia komunikazioaren, literaturaren eta arte eszenikoen arloko ordezkari ospetsuek osatzen dute, eta guztiak ados zeuden bigarren saria, hau da, 200 euro eta diploma, *Ospitalean* eta *Variaciones sobre la venganza de Don Mendo* lanei ematea erabaki zutenean. Lehenengo lana euskaraz idatzitakoa da eta bigarrena gazteleraz. Ohorezko aipamena, berriz, *The Fermin Konexion* eta *Arte-sonado* lanentzat izan zen.

Euskarazko kategorian, epaimahaia Edurne Ormazabalek, Arantxa Iturbek eta Arantxa Urretabizkaiak osatu dute; gaztelerazko kategorian, berriz, Lolo Ricok, Fernando Mikelajauregik, Paco Sagartzazuk, Maria Jesús Garijok eta Oscar Terolek.

Euskara saileko epaimahaiko kideek *John Trollope hamabostean behin* lan irabazlearen «originaltasuna, ondo egindako lana, aztarna poetikoa eta umore absurdoa» baloratu dituzte bereziki. Gaztelerazko atalean, berriz, lana antzezteko gaitasuna nabarmentzeaz gain, epaimahaiak lan irabazlea «bikaina, bizia eta burutsua» dela esan du.

Lehiaketa, gaztea izan arren, istorio hauen jarraitzaile guztientzat erreferentzia eta topagune bihurtzen ari da, begiak itxita «ikusteko». Diziplina artistiko berria izan ez arren, sormen handiko bideak deskubritzen ari da. Teknologia berriek artista askoren bidea lautu dute; genero honetan, ikusizko kultura ahalguztiduna albo batera utzita, sormenak leihoak irekita dituela ikusten duten artistena, hain zuzen ere.

Aurten, parte-hartzaileen kopurua, iazkoarekin alderatuta, bikoitza izan da (guztira, 24). Hazkundera euskarazko kategorian hauteman da bereziki; izan ere, sei proposamen jaso dira. Lehiaketa honetan parte hartu dutenen artean hainbat sektoretako profesionalak daude; hala nola, irratikoak, antzerkikoak eta kazetaritzako zein interpretazioko fakultatekoak.

Era berean, nabarmendu behar da Estatuko hainbat lekutatik eta Argentinatik ere proposamenak bidali dituztela. Gaztelerazko kategorian bigarren saria irabazi duen lana Argentinakoa da, hain zuzen ere. Horrek agerian uzten du lehiaketak nazioartean duen oihartzuna.

Saritutako lanak, aurkeztutako lanen aukeraketa, eta iazko irabazleen lanak *on line* entzun daitezke irratia [www.casaresirratia.com](http://www.casaresirratia.com) web orrian.

Gainera, uztailaren 10 eta 15 artean egingo den Antzerki Feria dela eta, 14:00etatik 15:00etara eta 22:00etatik 23:00etara, Casares irratia egitarau berezia diseinatu du. Horren bidez, saritutako lan batzuk entzun ahalko dira.

Antzerkia Airean ekimena Casares irratan sortu zuten. Casares Donostia Kulturak Casares-Tomasene kultur etxean duen irratia kulturala eta komunitarioa da, eta FMren 107.4 frekuentzian edota, Internet bidez, [www.casaresirratia.com](http://www.casaresirratia.com) web orrian entzun daiteke.

Nazioarteko lehiaketa honen helburua irratia antzerkia eta fikzioa ezagutzera ematea eta sustatzea da; irratan tradizio handia duen generoa, hain zuzen ere.



## **2007KO ANTZERKIA AIREAN. IRABAZLEEN ZERRENDA:**

### **Euskarazko kategoria:**

- Saio onenari 500 euro, plaka eta saria jasotzeko bidaia Donostiara, ondoko lanarentzat:

*John Trollope hamabostean behin, Ane Zabalarena.*

- Bigarren saio onenari 200 euro, diploma eta saria jasotzeko bidaia Donostiara, ondoko lanarentzat:

*Ospitalean, Alex Tellorena.*

- Hirugarren lan onenari ohorezko aipamenaren diploma, ondoko lanarentzat:

*The Fermin Konexion, Sugoí Martinena.*

### **Gaztelerazko kategoria:**

- Programa onenari 500 euro eta plaka, ondoko lanarentzat:

*El tamaño sí importa, Ángel Gómez Sánchezena.*

- Bigarren saio onenari 200 euro, diploma eta saria jasotzeko bidaia Donostiara, ondoko lanarentzat:

*Variaciones sobre la venganza de Don Mendo, Elda Jorgelina Lagosena.*

- Hirugarren lan onenari ohorezko aipamenaren diploma, ondoko lanarentzat:

*Arte-sonado, Álvaro Sotorena.*

